

## Emakumearen XIII. Astea

Hilaren 19an Intxaurrondoko XIII. Emakumearen Astea hasiko da, Lagunak Etxandre eta Intxaurrondo Berriko emakume elkarteek eta Garraldi Gizarte Zentroak antolatuta.

Hilaren 23ra arte hainbat jarduera egingo dira Larrotxene eta Intxaurrondo Berri kultur etxeetan. Hilaren 19an, Intxaurrondo Berri, "Mari Errauskinen konplexua" izeneko hitzaldia eskainiko du Inmaculada Lago Tola familia terapeutak. Hitzaldia 18.00etan hasiko da.

Hurrengo egunean, ordu berean eta Larrotxenen, Txus Bragadok solasaldia eskainiko du.

Hilaren 21ean, berriz, Idoia Sanchez tolosarrak "Ni ez naiz hori" clown antzezlan taula-



Emakumearen Eguna atzean geratu da. Hala ere, Intxaurrondon, hilaren 19an Emakumeen Astea hasiko da.

ratuko du (Larrotxenen, 19.00etan). Ostegunean musikaren txanda izango da. Donostiako Kamera Abes-

batzak kontzertua eskainiko du Maria Auxiliadora elizan, arratsaldeko 20.00etan. Hilaren 23an amaituko da astea, egitekoa den afariarekin. Izena emateko aipatu elkarten egoitzetara jo behar da: Lagunak Etxandre (Gaztelu 19), Intxaurrondo Berriko emakumeak (Bustintxulo 15) eta Garraldi (Zarategi 67).

### "Duba Obabadu" ipuin musikatua

Korrika Kulturala dela eta, hilaren 20an 19.00etan "Duba Obabadu" ipuin musikatuen ikuskizuna ikusi ahal izango da Ipar Haizea auzo elkartearen egoitzan. Patxi Hernando da ipuin lanaren egilea.

**Hilaren 19an Inmaculada Lagok "Mari Errauskinen konplexua" hitzaldia eskainiko du**

### Bakailoa errege

Hilaren 19ra arte, "Bakailoaren sukaldaritza" izenburupean Larzabal Gastronomia Ihardunaldiak egingo dira. Hainbat erakustaldi eta ikastaro antolatu dira Larzabal Intxaurrondoko jatetxean eta Euskal Herriko Gastronomia Etxean. Besteak beste, Aitor Eli-zegi, Patxi Giraldo, Xabier Diaz, Aizpea Oihaneder eta Pedro Le-zama sukaldariek jardungo dute.



## El Andorrano

1860tik zurekin

Alkandorak • Lentzeria

Garibai, 11 • DONOSTIA - Tel.: (943) 420607

## EL TURISTA

KIROL ETA BIDAJETARAKO  
ARTIKULUA

LEGAZPI, 6 • Tel.: (943) 42 77 46